



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilak 23

Vitoria-Gasteiz, 23 de enero de 2018

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

GOBERNUAK, URTARRILEAN, BERRIRO HELDUKO DIE LANGILE PUBLIKOEN PLANEN EKARPENEI

- Gaur, Gobernu Kontseiluak onetsi duen neurriak Euskal Sektore Publikoan lan egiten duten 90.000 pertsonak hartzen ditu
- Honen bidez, ITZARRI-EPSVri egiten zaizkion ekarpenei helduko zaie berriro, ordainsarien % 0,5ekin, eta aurrekontu globalean, ia 17 milioi euroko eragina du
- Eusko Jaurlaritzak dei egin die zentral sindikalei negoziazio kolektiborako; izan ere, oraindik badago, aurten, ehuneko hori % 1 arte handitzeko marjina

Gobernu Kontseiluak, gaur, onetsi du Euskal Sektore Publikoan lanean ari diren 90.000 langile ingururentzako enpleguko pentsio-planeri egiten zaizkien ekarpenei berriz heltzea; ondorioak izango ditu **2018ko urtarrilaren 1etik aurrera**.

Urtarril honetatik aurrera, **Euskal Administrazio Publikoek, erakunde eta sozietate publikoek**, langileen gastuen % 0,5eko ekarpena egingo dute. Erabaki horrek, aurrekontuan, **16.880.674 euroko** eragina izango du.

ITZARRI-EPSVrako ekarpenak etenda zeuden, Espainiako oinarrizko araudiak hala aginduta, 2012ko urtarriletik. *20/2011 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 30ekoak, Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurriei buruzkoak*, berariaz debekatu zuen ekarpenak egitea enpleguko pentsio-planeri edo aseguru kolektiboen kontratuei.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

Erabaki horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bete egiten du langile publikoen erretirora bideratutako planeri egiten zitzaizkien ekarpenei berriz heltzeko konpromisoa. Gainera, hala egingo du, erabakiak erabateko segurtasun ekonomikoa eta juridikoa duenean.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak funtzio publikoko sindikatuei eskatu die Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean negoziatzeko, ITZARRI-EPSVri egiten zaizkion ekarpenak are gehiago zabaldu ahal izateko adostasunera iristeko. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak gogorarazi du 2018rako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak, aurten, ekarpenaren ehuneko hori % 1 arte handitzeko aukera ematen duela.

ITZARRI-EPSV

ITZARRI borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundea da; 2004ko maiatzaren 6ko “*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean*” hartutako akordioaren ondorioz sortu zen.

Euskadin inbertsiorik handiena duen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundea da. Euskadiko Administrazio Orokorreko eta Erakunde Administrazioko langile publikoen aurreikuspen-plana kudeatzen du, eta gaur egun, 90 mila langile baino gehiago batzen ditu.

Hamabi urteko ibilbidean, ITZARRI-EPSVk, urtean, % 4,33ko batez besteko errentagarritasuna lortu du.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

16 MILIOI EUROREN LAGUNTZAK IRAGARRITA ARDOGINTZAREN SEKTOREA KANPOAN SUSTATZEKO ETA MODERNIZATZEKO INBERTSIOETARAKO

- Helburua da ardoa gure mugetatik haratago sustatzea eta merkatuaren eskarrietara hobeto egokitzen laguntzea, lehiakortasuna eta errendimendua hobetuta
- Programa horien bitartez 50 milioi euroren laguntzak emango dira guztira, eta horietatik –35 milioi inguru– inbertsio pribatutik etorriko dira eta gainerakoa –16 milioi– fondo publikoetatik

2018ko ekitaldian ardogintzaren produktuak hirugarren herrialdeetan ezagutarazteko eta sustatzeko programak eta ekintzak garatzeko eta sektorean inbertsioak egiteko laguntzak iragarriaz Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantxa Tapiak emandako agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak bere azken Kontseilu bileran. Programa horien bitartez sortzen diren laguntzak 50 milioi eurokoak dira guztira, eta horietatik –35 milioi inguru– inbertsio pribatutik etorriko dira eta gainerakoa –16 milioi– fondo publikoetatik.

Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan abiarazitako Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoak (GEPE) dituen helburuekin bat etorritz, **elikaduraren balio katearen eremuan lan egiteko ildo nagusiak markatzen baititu**, laguntza horien helburua da ardoa gure mugetatik haratago sustatzea eta sektorean inbertsioak egiten laguntzea, merkatuaren eskarrietara hobeto egokitzeko eta Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorean eta, beraz, Euskadiko ekonomian ere zati nagusi diren enpresen lehiakortasuna eta etekin globala areagotzeko.

Laguntza motak

- **Hirugarren Herrialdeetan Sustatzeko Programak:** Programa horietan sartzen diren produktuak dira ardoak, likore ardoak, ardo apardunak, kalitateko ardo apardun aromatikoak, ardo txinpartadunak, ardo txinpartadun gasdunak, mahaspasa bihurtutako mahatsen ardoak, gehiegi heldutako mahatsen ardoak eta ekoizpen ekologikotik datozen ardoak. Produktu horiek esportatzeko aukerak eduki behar dituzte edo hirugarren herrialdeetan merkaturatzeko bide berriak, eta kontsumo zuzenera bideratuta egon behar dira. Gainera, kategoria hauetako batekoak izan behar dira: Jatorri Izendapen babestuko ardoa, Adierazpen Geografiko Babestuko ardoa, edo Ardotarako mahats aldaeraren izena adierazita duen ardoa.

Hirugarren Herrialdeetan Sustatzeko Programak gauzatzeko epea ekitaldi bateko ekainaren 1etik hurrengo ekitaldiko maiatzaren 30era artekoa da.

- **Ardogintzaren sektoreko inbertsioak:** Ekoizpenaren baldintzak, komertzializazioarenak edo biena hobetzera zuzendutako inbertsioak, bai eta produktu, prozedura eta teknologia berriak garatzera bideratutakoak ere. Ardogintzaren sektoreko inbertsioak gauzatzeko epea ekitaldi bateko urriaren 16an hasiko da eta hurrengo ekitaldiko urriaren 15ean bukatuko. Halere, urte bat baino gehiagorako programa bat ere aurkeztu daiteke, eta kasu horretan gehienez ere bi urterako izango da.

Laguntza bien onuradunak izan daitezke ardogintza enpresak, ardo eta mahasti ekoizleen elkarteak eta beraien elkarte profesionalak eta profesional artekoak, ardoen adierazpen geografiko babestu eta jatorri izendapen babestuen kudeaketa organoak eta ordezkariak, bi ekoizle edo gehiagok eraturako aldi baterako elkarteak edo elkarte iraunkorrak, eta legeak ezarrita hirugarren herrialdeetan produktuak eta merkatuak sustatzeko ekintzen garapenerako eskumena duten erakunde publikoak.

Diru kopurua

Sustapenerako laguntzei dagokienez, kalkulatzen da onurardunek gutxienez finantzaketaren %50 eskuratuko dutela. Kalkulatzen da, beraz, fondo publikoetatik 8.500.000 € erabiliko direla, horietatik 1.500.000 € 2018ko ekitaldian eta gainerako 7.000.000 €-ak 2019ko ekitaldian.

Inbertsiorako laguntzei dagokienez, berriz, onurardunek %25 inguru jasoko dute eta, beraz, fondo publikoetatik 7.500.000 € erabiliko dira horretarako.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

FELIX GARCANDIA TELLERIAREN IZENDAPENA PASAIKO PORTU AGINTARITZAKO PRESIDENTE KARGUAN

Gobernu kontseiluak onartu du Felix Garcandia Telleriaren proposamena Pasaiko Portu Agintaritzako presidentziarako. Agintaritzak datozen egunotan egingo du izendapena.

CURRICULUM VITAE:

ONARRIZKO PRESTAKUNTZA

- 1984-89 **Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentziaduna**, Deustuko Unibertsitatea.
- 1994-97 **Ekonomia eta Enpresa Zientzietako doktorea**, Finantza Kudeaketa eta Kontabilitatea, Deustuko Unibertsitatea. Kalifikazioa: *Cum Laude* aho batez (kalifikazio altuena).
- 2003-07 **Industria-ingeniarial/Bachelor of Engineering (Hons) (First-class) and Diploma in Design and Innovation**, The Open University (Erresuma Batua). Kide graduatua (GradIED) Erresuma Batuko Energiaren espezializatutako ingeniarien Elkargoan (www.energyinst.org).
- 2015-17 **Professional Certificate of Accounting (The Open University, UK).**
- Prestakuntza osagarria.**
 1998-99 Kanpo Merkataritzako unibertsitateko espezialistaren Graduondoa (40 kreditu), UNED, Madril
 2000-01 Interes-tasen, kanbio-tasen eta finantza-aktibo deribatuen unibertsitateko espezialistaren Graduondoa (40 kreditu), UNED, Madril.

LAN ESPERIENTZIA

- 2017/08-... **Proiektu burua – SPRILUR, SA, Eusko Jaurlaritza, gaur egungo lanpostua.**
- 2011/10-2017/07 **Zuzendari nagusia - ZUBIALDE, SA** (Aizarnazabal, Gipuzkoa). Orearen eta paperaren sektorea (www.zubialde.com)
- 2008/04-2011/10 **Controller Industrial eta arduradun korporatiboa energia- eta jasangarritasun-proiektuetan. VISCOFAN, SA** (Iruñea) Elikagaigintza (www.viscofan.com)
- 2006/10-2007/12 **Analisi ekonomikoko irakaslea, kontsultorea eta ikertzailea. Deustuko Unibertsitatea/ Lehiakortasunerako Euskal Institutua** (Donostia, www.orkestra.deusto.es).
- 2002/05-2006/10 **Kudeatzailea eta auditoretzako zuzendaria. AGENCIA PARA LA RENOVACIÓN URBANA DE LA BAHÍA DE PASAIA, S.A.**, (Donostia) URBAN II Ekimen Komunitarioa Programa (2000-06), www.bahiadepasaia.com.
- 2000/03-2002/05 **Kudeatzailea. UNIÓN NAVAL DE PASAIA, A.I.E.** (Pasaia).
- 1998/09-2000/02 **Ekonomiako eta finantza-kudeaketako irakaslea, ikerketa-arduraduna eta nazioarteko harremanak.** Mondragon Unibertsitatea. Enpresagintza Fakultatea, Oñati.
- 1995/05-1998/07 **Area Export Manager. BELLOTA HERRAMIENTAS, S.A.** (Legazpi). Eskuzko tresnaren eta nekazaritzako ordezkotza piezen dibisioak.
- 1993/06-1993/12 **Inbertsio-funtzen balorazioko teknikaria. KUTXAGEST, S.A.** (Donostia) (lehenago KUTXAko inbertsio-funtsen kudeaketa-etxea).
- 1990-1992 **Merkatuko analista. Espainiako Enbaxadaren merkataritza-bulegoa Venezuelan (OFCOMES Caracas).** Eusko Jaurlaritzaren kanpo-merkataritzako goi-mailako beka, merkaturko analista / esportazioko arduraduna.

BESTE BATZUK

Kanpo Merkataritzako ECEXNA Saria, Nafarroako Gobernua (1998).
 Argitalpen aitzindarien egilea, besteak beste:

- **Análisis económico financiero de la empresa vasca (2000-2005)**, Deustuko Unibertsitatea / Lehiakortasunerako Euskal Institutua (<http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/orkestra/orkestra08.pdf>)
- **Análisis estratégico y económico aplicado a la pesca. el caso de la pesquería del bonito del norte.** Mondragon Unibertsitatea, Oñati, 1999.

Enplegua eta Gizarte Politikak

**LANBIDEK HANDITU EGIN DU 400.000 EUROAN ENPLEGU ZENTRO
BEREZIETAKO LANBIDE JARDUERETARAKO LAGUNTZA UNITATEETARA
BIDERATUTAKO AURREKONTUA, ETA, GUZTIRA AURREKONTUA
4.600.000 EUROKOA DA**

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak onartu egin du Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioa; akordio horren bidez, laguntza-deialdien aldaketa onartu da, 2018 ekitaldian Enplegu Zentro Berezietako Lanbide Jardueretarako Laguntza Unitateak finantzatzeko. Hasieran esleitutako kreditua 4.200.000 euro zen, eta onetsi da 400.000 euroan handitzea eta 4.600.000 eurokoa izatea.

Laguntza horiek finantzatzeko hasierako kreditua Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren bidez esleitu zen; akordioa 2017ko abenduaren 28ko saioan hartu zen, eta 2017ko abenduaren 29ko EHAAn argitaratu zen, erakunde autonomoko zuzendari nagusiak 2017ko abenduaren 28an emandako ebazpenaren bidez.

Ebazpen honek aipatzen dituen diru-laguntzak Enplegu Zentro Berezietako erakunde titularrek eskatu ahalko dituzte, eta, dagokion erregistroan inskribatuta egonik, plantillan desgaitasun-mota eta/edo -maila dela-eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langileak eta eraketa jakin bateko laguntza-unitateak dauzkaten zentroek. Izena emateko epea EHAAn argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2018ko otsailaren 5era arte egongo da zabalik.

Osasuna

EUSKADI ETA TUNISIA TEKNOLOGIA SANITARIOAREN EBALUAZIOAREN ARLOAN ELKAR ULERTZEKO MEMORANDUMA

Eusko Jaurlaritzak Euskadik eta Tunisiak osasun-teknologiaren ebaluazioaren arloan elkar ulertzeko memorandum bat sinatzea onartu du gaur. Osasun Sailak (Osteba Teknologia Sanitarioak Ebaluatzeko Zerbitzuaren bitartez) eta Tunisiako Osasunaren Ebaluazio eta Egiaztapenerako Instantzia Nazionalak (INASanté), akordio horri jarraikiz, lankidetzan jardungo dute teknologia sanitarioen erabilera egokiaren sustapenean, segurtasunari, eraginkortasunari, eskuragarritasunari eta ekitateari dagokienez, funtsezkoa baita erabakiak hartzeko.

Ostebak, bere 25 urteko ibilbidean, aurrerapen handiak egin ditu hainbat arlotan, hala nola bilaketa bibliografikoei lotutako lan-metodoen optimizazioan, azterlan epidemiologikoen irakurketa kritikoan, ebaluazio ekonomikoan, teknologia berrien eta zaharkituen ebaluazioan, praktika klinikoko gidaliburuetan eta gomendioetan.

Ostebaren sareko lanari esker garatutako metodorik azpimarragarrienetako bat Irakurketa Kritikoko Fitxen aplikazioa da. Osasun Sistema Nazionalaren (RedETS) agentzietan eta beste ikerketa-eremu batzuetan erabilitako online app bat da, eta azterlanen kalitatea aztertzea ahalbidetzen du (proba diagnostikoak, berrikuspen sistematikoak, saiakuntza klinikoak eta abar). INASanték, hain zuzen ere, interesa agertu du aplikazio horren bertsio bat erabiltzaile frankofonoentzat implementatzeko. Era horretan, haren irismena eta ahalmena areagotuko da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 2.445.000 EURO ONARTU DITU EUSKAL KIROL FEDERAZIOENTZAT, HAUEN KIROL-PROGRAMAK FINANTZATZEKO

- **Aurten, lehen aldiz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna kirolean lortzeko ekimenak sustatzea baloratuko da**

Eusko Jaurlaritzak 2.445.000 euroko diru-laguntza deialdia onartu du bere gaurko saioan, euskal kirol federazioei zuzendua. Aurtengo nobedade nagusietako bat zera da: diru-laguntzen zenbatekoa ezartzeko orduan kontuan hartuko da ekimenak sustatzea sexuen arteko aldeak ekiditeko, emakumeen parte hartzea bultzatzeko eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzeko. Iazko deialdian 47 federaziok jaso zuten diru-laguntzaren bat deialdi honen bitartez.

Federazioentzat funtsezkoak diren diru-laguntza hauek banatzeko orduan honako irizpideak hartzen dira kontuan:

- Federazioaren kirol-programa (puntuen %60a).
- Ekimenak sustatzea sexuen arteko aldeak ekiditeko, emakumeen parte hartzea bultzatzeko eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzeko (%10a).
- Euskararen erabilera (%10) formazio-ikastaroetan, dokumentu ofizialetan, webgunean, hiritarrentzako arretan, hizkuntza-paisaian...
- Autofinantziaketa maila (%5).
- Lizentzia federatua duten kirolariak eta Kirol-lizentziak plataformaren erabilera (%5).
- Eusko Jaurlaritzak edota Kirolaren Kontseilu Gorenak onartutako goi mailako kirolarien zenbatekoa (%5).
- Euskaliteko 3k Programaren Kudeaketa Aurreratuaren Diploma (%5).

Eusko Jaurlaritzaren ekarpena deialdi honetarako 95.000 euro areagotu egin da iazkoarekin alderatuta. Diru-laguntza hauez gain, Exekutiboak bestelako diru-laguntzak ere bideratzen ditu kirol federazioentzat eta Euskal Kirol Federazioen Batasunarentzat (EKFB).

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO RETOMA, ESTE MES DE ENERO, LAS APORTACIONES A LOS PLANES DE PENSIONES DEL PERSONAL PÚBLICO

- La medida aprobada, hoy, por el Consejo de Gobierno, alcanza a las **90.000 personas que trabajan en el Sector Público Vasco**
- Supone reanudar las aportaciones a ITZARRI-EPSV con un **0,5% de las retribuciones** y un **impacto presupuestario global de casi 17 millones de euros**
- El Gobierno Vasco hace un llamamiento a las centrales sindicales a la **negociación colectiva** porque aún hay margen, este año, para **incrementar este porcentaje hasta el 1%**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, retomar, con **efectos de 1 de enero de 2018**, las aportaciones a los planes de pensiones de empleo para el personal que trabaja en el Sector Público Vasco, cerca de 90.000 personas.

A partir de este mismo mes de enero, el conjunto de la **Administración Pública Vasca, los entes y sociedades públicas**, aportarán el 0,5% de los gastos de personal. Esta decisión tendrá un impacto presupuestario de **16.880.674 euros**.

Las aportaciones a ITZARRI-EPSV fueron suspendidas, por normativa básica española, desde enero de 2012. El *Real Decreto-ley 20/2011, de 30 de diciembre, de medidas urgentes en materia presupuestaria, tributaria y financiera para la corrección del déficit público* prohibió, expresamente, realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos.

NEGOCIACIÓN COLECTIVA

Con esta decisión, el Gobierno Vasco cumple su compromiso de retomar las aportaciones a los planes de jubilación del personal público. Lo hace además, cuando la decisión cuenta con plena seguridad económica y jurídica.

Además, el Gobierno Vasco emplaza a los sindicatos de la función pública a la negociación en la Mesa General de la Función Pública para llegar a un acuerdo que permita ampliar, aún más, las aportaciones a ITZARRI-EPSV. En este sentido, el Gobierno Vasco recuerda que la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2018, contempla la posibilidad de que pueda incrementarse el porcentaje de aportación, este año, hasta el 1%.

ITZARRI-EPSV

ITZARRI es una Entidad de Previsión Social Voluntaria que tiene su origen en el acuerdo alcanzado en el seno de la “*Mesa General de Negociación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi*”, de 6 de mayo de 2004.

Es la EPSV empresarial con mayor inversión en Euskadi. Gestiona el plan de previsión del personal público de la Administración General e Institucional de Euskadi e integra, en la actualidad, a más de 90 mil trabajadores y trabajadoras.

En sus doce años de trayectoria, ITZARRI-EPSV ha logrado una rentabilidad media anual del 4,33%.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

CONVOCADAS AYUDAS POR VALOR DE 16 MILLONES DE EUROS PARA PROMOCIÓN EXTERIOR E INVERSIONES EN MODERNIZACIÓN DEL SECTOR VITIVINÍCOLA

- El objeto es potenciar el vino más allá de nuestras fronteras y mejorar su adaptación a las demandas del mercado, aumentando la competitividad y el rendimiento
- El montante total que se genera a través de dichos programas alcance un total de 50 millones de euros, de los cuales - alrededor de 35 millones, procederán de inversión privada y el resto – 16- de fondos públicos

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado en su última reunión la orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, Arantxa Tapia, por la que se convocan ayudas para el ejercicio 2018 destinadas al desarrollo de acciones y programas de información y promoción en terceros países de productos vinícolas, así como para inversiones en el sector. El montante total que se genera a través de dichos programas alcance un total de 50 millones de euros, de los cuales - alrededor de 35 millones, procederán de inversión privada y el resto – 16- de fondos públicos.

En consonancia con los objetivos del **Plan Estratégico para la Gastronomía y la Alimentación (PEGA) puesto en marcha esta legislatura por el Gobierno Vasco y que marca las líneas básicas de trabajo en el campo de la cadena de valor de la alimentación**, estas ayudas tienen por objeto potenciar la promoción del vino más allá de nuestras fronteras y facilitar las inversiones en el sector, para mejorar la adaptación a las demandas del mercado y aumentar la competitividad y el rendimiento global de estas empresas, parte importante del sector agrolimentario vasco y, por tanto, de la economía de Euskadi en general.

Tipos de ayuda

- **Programas de Promoción en Terceros Países:** Los productos afectados son vino, vino de licor, vino espumoso, vino espumosos de calidad, vino espumosos aromático de calidad, vino de aguja, vino de aguja gasificado, vino de uvas pasificadas, vino de uvas sobremaduradas, y vinos procedentes de la producción ecológica. Estos productos deberán contar con posibilidades de exportación o de nuevas salidas comerciales en terceros países y estar destinados al consumo directo. Además, deberán pertenecer a alguna de las categoría: vino con Denominación de Origen protegida, vino con Indicación Geográfica Protegida, o vino en que se indique la variedad de uva de vinificación.

El plazo de ejecución de los Programas de Promoción en Terceros Países es del 1 de junio de un ejercicio al 30 de mayo del ejercicio siguiente.

- **Inversiones en el sector vinícola:** correspondientes a las inversiones destinadas a mejorar las condiciones de producción, comercialización, o ambas y al desarrollo de nuevos productos, procedimientos y tecnologías. El plazo de ejecución de las Inversiones en el sector vinícola es del 16 de octubre de un ejercicio al 15 de octubre del ejercicio siguiente, pudiendo presentarse un programa plurianual hasta de dos anualidades.

Los beneficiarios de ambas ayudas podrán ser empresas vinícolas, organizaciones de productores vitivinícolas y sus asociaciones profesionales o interprofesionales, órganos de gestión y de representación de las indicaciones geográficas protegidas y denominaciones de origen protegidas vnicas, asociaciones temporales o permanentes de dos o más productores , y los organismos públicos con competencia legalmente establecida para desarrollar actuaciones de promoción de productos y mercados en terceros países.

Montante económico

Por lo que se refiere a las **ayudas a la promoción**, se calcula que las personas beneficiarias recibirán al menos el 50% de la financiación. Se estima por lo tanto que se utilizarán 8.500.000 € de fondos públicos, de los cuales 1.500.000 € corresponden al ejercicio 2018 y 7.000.000 € al ejercicio 2019.

Por lo que se refiere a las **ayudas a la inversión**, en las que las personas beneficiarias recibirán alrededor del 25% y que por lo tanto se destinarán 7.500.000 € de fondos públicos.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

NOMBRAMIENTO DE FÉLIX GARCIANDIA TELLERÍA COMO PRESIDENTE DE LA AUTORIDAD PORTUARIA DE PASAIA

El Consejo de Gobierno ha aprobado proponer a Félix Garcíandia Tellería como nuevo presidente de la Autoridad Portuaria de Pasaia. Esta autoridad procederá a su nombramiento en los próximos días.

CURRILUM VITAE

FORMACIÓN BÁSICA

- 1984-89 **Licenciado en Ciencias Económicas y Empresariales**, Universidad de Deusto.
- 1994-97 **Doctor en Ciencias Económicas y Empresariales**, Gestión Financiera y Contabilidad, Universidad de Deusto. Calificación: *Cum Laude* por unanimidad (máxima calificación).
- 2003-07 **Ingeniero industrial/Bachelor of Engineering (Hons) (First-class) and Diploma in Design and Innovation**, The Open University (Reino Unido). Miembro graduado (GradIED) del Colegio de ingenieros especializados en energía del Reino Unido (www.energyinst.org).
- 2015-17 **Professional Certificate of Accounting (The Open University, UK)**.

Información formación complementaria.

- 1998-99 Posgrado de especialista universitario en Comercio Exterior (40 créditos), UNED, Madrid
- 2000-01 Posgrado de especialista universitario en tipos de interés, tipos de cambio y activos financieros derivados (40 créditos), UNED, Madrid.

EXPERIENCIA PROFESIONAL

- 08/2017-... **Jefe de proyecto – SPRILUR, S.A., Eusko Jaurlaritza, trabajo actual.**
- 10/2011-07/2017 **Director General - ZUBIALDE, S.A.** (Aizarnazabal, Guipúzcoa). Sector de pasta y papel (www.zubialde.com).
- 04/2008-10/2011 **Controller Industrial y Responsable Corporativo de Proyectos de Energía y Sostenibilidad. VISCOFAN, S.A.** (Pamplona) Sector alimentario (www.viscofan.com).
- 10/2006-12/2007 **Profesor de Análisis Económico, Consultor e Investigador. Universidad de Deusto/Instituto Vasco de Competitividad** (San Sebastián, www.orkestra.deusto.es).
- 05/2002-10/2006 **Gerente y director de auditoría. AGENCIA PARA LA RENOVACIÓN URBANA DE LA BAHÍA DE PASAIA, S.A.**, (San Sebastián) Programa Iniciativa Comunitaria URBAN II (2000-06), www.bahiadepasaia.com.
- 03/2000-05/2002 **Gerente. UNIÓN NAVAL DE PASAIA, A.I.E.**(Pasaia).
- 09/1998-02/2000 **Profesor de economía y gestión financiera, responsable de investigación y relaciones internacionales.** Mondragon Unibertsitatea. Facultad de CCEE y Empresariales, Oñati.
- 05/1995-07/1998 **Area Export Manager. BELLOTA HERRAMIENTAS, S.A.** (Legazpia). Divisiones de herramienta manual y de recambio agrícola..
- 06/1993-12/1993 **Tecnico de Valoración de Fondos de Inversión. KUTXAGEST, S.A.** (Donostia-San Sebastián) (gestora de fondos de inversión de la antigua KUTXA).
- 1990-1992 **Analista de Mercado. Oficina Comercial de la Embajada de España en Venezuela (OFCOME Caracas).** *Beca superior de comercio exterior del Gobierno Vasco, analista de mercado/responsable de exportación*

OTROS

Ganador Premio ECEXNA Comercio Exterior, Gobierno de Navarra (1998).

Autor de publicaciones pioneras, entre otras:

- **Análisis económico financiero de la empresa vasca (2000-2005)**, Universidad de Deusto/Instituto Vasco de Competitividad (<http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/orkestra/orkestra08.pdf>)
- **Análisis estratégico y económico aplicado a la pesca. el caso de la pesquería del bonito del norte.** Mondragon Unibertsitatea, Oñati, 1999.

Empleo y Políticas Sociales

LANBIDE INCREMENTA EN 400.000 EUROS EL PRESUPUESTO DEDICADO A LAS UNIDADES DE APOYO A LA ACTIVIDAD PROFESIONAL DE LOS CENTROS ESPECIALES DE EMPLEO, HASTA LOS 4.600.000 EUROS

A propuesta de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno vasco, el de Gobierno ha dado luz verde al acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por el que se aprueba la modificación de la convocatoria de ayudas, para la financiación en el ejercicio 2018, de las Unidades de Apoyo a la Actividad Profesional de los Centros Especiales de Empleo. El crédito inicialmente asignado era de 4.200.000 euros y se ha aprobado incrementarlo en 400.000, hasta los 4.600.000 euros.

El crédito inicial para financiar estas ayudas fue asignado mediante Acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, adoptado en su sesión de 28 de diciembre de 2017, publicado en el BOPV de 29 de diciembre de 2017 mediante Resolución del Director General de este organismo autónomo de fecha 28 de diciembre de 2017.

Podrán solicitar las subvenciones a que se refiere la presente Resolución las entidades titulares de los Centros Especiales de Empleo y dichos Centros, inscritos en el Registro correspondiente, que cuenten en su plantilla con trabajadores con discapacidad con especiales dificultades de inserción por el tipo y/o grado de discapacidad, y que dispongan de Unidades de Apoyo con determinada composición. El plazo de inscripción comenzará al día siguiente de su publicación en el BOPV y permanecerá abierto hasta el 5 de febrero de 2018.

Salud

MEMORANDO DE ENTENDIMIENTO ENTRE EUSKADI Y TÚNEZ EN MATERIA DE EVALUACIÓN DE TECNOLOGÍA SANITARIA

El Gobierno Vasco ha aprobado hoy la firma de un memorando de entendimiento entre Euskadi y Túnez, en materia de evaluación de tecnología sanitaria. El Departamento de Salud, a través de su Servicio de Evaluación de Tecnologías Sanitarias, Osteba; y la Instancia Nacional para la Evaluación y Acreditación en Salud de Túnez, INASanté; colaborarán en virtud de este acuerdo en la promoción del uso adecuado de tecnologías sanitarias en términos de seguridad, eficacia, accesibilidad y equidad, fundamental para la toma de decisiones.

A lo largo de sus 25 años de existencia, Osteba ha avanzado sustancialmente en campos como la optimización de métodos de trabajo relativos a búsquedas bibliográficas; lectura crítica de estudios epidemiológicos; evaluación económica; identificación y evaluación de las tecnologías emergentes y obsoletas; elaboración de guías de práctica clínica; y formulación de recomendaciones.

Uno de los más destacables métodos desarrollados gracias al trabajo en red de Osteba es la aplicación de Fichas de Lectura Crítica (FLC), una app on-line utilizada por las agencias de evaluación del Sistema Nacional de Salud (RedETS) y otros ámbitos investigadores, y que permite analizar la calidad de diferentes estudios (pruebas diagnósticas, revisiones sistemáticas, ensayos clínicos, etc). INASanté ha mostrado precisamente su interés en implementar una versión de esta aplicación para potenciales usuarios francófonos, ampliando así su alcance y potencialidad.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO DESTINA 2.445.000 EUROS A LAS FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS PARA AYUDAR EN LA FINANCIACIÓN DE SUS PROGRAMAS DEPORTIVOS

- **Este año se valorará por primera vez el desarrollo de acciones para impulsar la igualdad en el deporte entre mujeres y hombres**

El Gobierno Vasco ha aprobado en su sesión de hoy una convocatoria de ayudas de 2.445.000 euros destinada a las federaciones deportivas vascas. Una de las novedades de este año es que se valorará como un criterio de cuantificación de las ayudas el desarrollo de acciones para eliminar desigualdades, fomentar la participación femenina y promover la igualdad entre mujeres y hombres. El pasado año un total de 47 federaciones recibieron algún tipo de subvención gracias a esta convocatoria.

A la hora de repartir estas ayudas, fundamentales para el funcionamiento de las federaciones, se tienen en cuenta los siguientes criterios:

- Programa deportivo de la federación. (60% de los puntos).
- Acciones desarrolladas por las federaciones para eliminar desigualdades, fomentar la participación femenina y promover la igualdad entre mujeres y hombres (10%).
- Utilización del euskera (10%) en cursos de formación, documentos oficiales, página web, atención al público en esta lengua, uso en el paisaje lingüístico...
- Nivel de autofinanciación (5%).
- Número de deportistas con licencia federada y uso de la plataforma Kirol-lizentziak (5%).
- Número de deportistas de alto nivel, reconocidos por el Consejo Superior de Deportes y/o por el Gobierno Vasco (5%).
- Diploma a la Gestión Avanzada», del Programa 3K de Euskalit (5%).

La aportación del Gobierno Vasco para esta convocatoria ha aumentado en 95.000 euros con respecto al año pasado. Además de estas ayudas, el Ejecutivo aporta otras subvenciones a las federaciones deportivas y a la Unión de Federaciones Deportivas de Euskadi (EKFB-UFDE).